

MANIFESTUA: Hezkuntza segregazioaren aurka. Hezkuntza misto baten alde

Manifestu hau izenpetzen dugunok apustu egiten dugu bereizkeriarik egiten ez duen eskola-irakaskuntza baten alde, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik inor bereizten ez duena. Horrenbestez, ikasleen segregazioaren aurka gaude.

Defendatzen eta aldarrikatzen dugun hezkuntza da oinarrizko eskubide eta askatasunetan, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean eta tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarriturikoa:

- Ikastetxeetan sexuaren arabera bereiztearen aurka gaude. Pertsonen sexua da oinarrizko hezkuntza eskuratzekoan abiaburuko desberdintasunik eragin behar ez duen baldintza bat.
- Hezkuntza-aukerarik onena da bi sexuetakoa haur eta gazteak ikasgela berean hezten eta bizitzen direnekoa, hori baita bermerik onena bizikidetasunean bizitzen ikasteko, elkar errespetatzen ikasteko eta gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak onartzen eta positiboki baloratzen ikasteko.
- Baterako hezkuntzaren printzipioa ikastetxeetan hezkuntza-etapa guztietan garatzeak bermatu egiten du gizon-emakumeen eskubide-berdintasuna sustatzea eta egiazki garatzea, indartu egiten du gizarte-kohesioa, eta sexu ezberdinetako pertsonen aukera-berdintasuna errazten du.
- Irakaskuntza mistoa ingurunerik egokiena da gizon eta emakumeen arteko bereizkeria eragiten duten aurreiritzi eta estereotipo sexisten eta genero-indarkeriaren prebentziorako.

Aldarrikatzen dugu ez dadila irakaskuntzarik itundu ikasleak bereizten dituzten eta LOEren agindua betetzen ez duten ikastetxeekin. Ituntzen diren ikastetxeetako ikasle-postuek ikastetxe publikoetako betekizun berberak bete behar dituzte.

Gurasoek ikastetxea askatasunez hautatu ahal izatea errespetatzen dugu, baina halaber defendatzen dugu funts publikoak ez direla erabili behar bereizitako eskolatzearen aldeko aukera egiten duten familietakoak diren ikasleen hezkuntza diruz laguntzeko.

Gogorarazi nahi dugu ezen LOE-Hezkuntzaren Lege Organikoak, zeina Estatu guztian ezinbestean bete beharrekoa baita, eta ikastetxe publiko nahiz pribatu itunduetan eskolatzeari buruzko arauak ezartzen baititu, 2.b eta 84.3 artikuluetan xedatzen duela ez dela baimentzen sexuaren araberako bereizkeriarik.

Ikasleak bereizten dituzten Nafarroako ikastetxeak ez finantzatzeko Lege proposamena dela-eta zenbait ekimen antolatu diren honetan, eskatzen dizugu azal diezaguzula manifestu honekin ados zauden, eta, sinadura modura, zure babesarekin emateko mezu bat bidal diezaguzula, behealdean ikusiko duzun gutun-azalean klik eginez.

Eskerrik asko



<http://www.educacionigualitaria.org>